

Derrigorrezko soldaduskaren ezarpena Oarso-Bidasoako eskualdean XIX. mendean

(The restore of the Obligatory military service in the region of Oarso-Bidasoa in the XIXth century)

Alijostes Olasagasti, Gorka

Eusko Ikaskuntza

Miramar Jauregia - Miraconcha, 48

20007 Donostia

BIBLID [1136-6834 (1996), 24; 3-31]

1876.an foru sistemaren behin behineko deuseztapenarekin, euskal hiru lurraldeen artean eta espainiar monarkiaren artean, uztarketa politiko berri bat eraiki zen. 1876ko uztailaren 21eko legeak, euskal gaztedia espainiar ejerzitoaren baharrak asetzera derrigortu zuen, hau da legedi berriak derrigorrezko soldaduska inposatu zuen. Gure ikerketak, XIX. mendeko azken laurdenean soldaduskarako legediak aplikatzerakoan gertatutakoak azterizen ditu. Lan hau burutu ahal izateko gipuzkoako Oarso-Bidasoako eskualdeko hainbat udalerrri hartu dira adibide moduan, 1876-1900 urte bitartean. Horretaz gain aukera izan dugu, gizarte horren intziak, jarreak eta jokabideak ikusteko derrigorrezko soldaduskaren inguruan.

Giltz-Hitzak: Militarrak. Soldaduskarako legeak. Iheslariak. Kubako guda

Con la definitiva abolición del régimen foral acaecido en el año 1876, las tres provincias vascas lograrán una nueva forma de vertibración política con la monarquía española. La ley del 21-jul-1876 estableció la obligatoriedad para que la juventud vasca satisficiera las necesidades del Ejército español, dicho en otras palabras la nueva ley impuso el servicio militar obligatorio. Nuestra investigación se aproxima a lo que sucedió en torno a la aplicación de las novedosas leyes de reemplazo en el último cuarto del S. XIX. Para ello se ha tomado como ejemplo los municipios que componen la comarca guipuzcoana del Oarso-Bidasoa, entre los años 1876-1900. La labor desempeñada nos ha permitido comprobar el comportamiento y la mentalidad de aquella sociedad en torno al servicio militar y sus derivaciones; deserciones, guerras, redenciones etc.

Palabras Clave: Militares. Leyes Militares. Prófundos. Guerra de Cuba.

Avec la définitive abolition du régime foral arrivée en 1876, les trois provinces basques seront intégrées politiquement d'une nouvelle façon dedans la monarchie espagnole. La loi du 21 juillet 1876 établissait que les jeunes hommes basques devaient satisfaire les nécessités de l'Armée espagnole, c'est à dire que la nouvelle loi imposait le service militaire obligatoire. Noire investigation s'approche à ce qui c'est passé à la suite de l'application des nouvelles lois en le dernier quart du XIX éme siècle. Pour faire ça, nous avons pris comme exemple la région d'Oarso-Bidasoa, entre cettés années 1876-1900. Grace à cette investigation, nous avons pu vérifier le comportement et la mentalité de la société autour du service militaire et ses dérivations: désertions, guerres, rachats, etc.

Mots Clés: Service Militaire. Lois Militaires. Désertions. La Guerre de Cuba.

1. LEGEAREN HARITIK

Atal honen barruan bi lege mota ezberdinen azterketa egingo da. Bi hauek zerikusi zuzena dute derrigorrezko soldaduskaren gaiarekin. Hain garrantzitsuak direnez, gure ikerketaren abiapuntu bihurtu dira.

Lehen puntuan, foru sistemaren deuseztapen legeen ondorioak laburbildurik aurkeztuko ditugu. Bide batez derrigorrezko soldaduska nola ezarri zen eta zein egoeratan gertatu zen ikusiko dugu.

Bigarren atalean, XIX.menderarte ezezagunak ziren soldaduskarako legedi orokorrek diotena aztertuko dugu, hau da, "*Leyes de reemplazos*" berriak ezarritako prozedura eta pausoak behatuko ditugu.

Hau guztia egin ondoren, legeen ondoren datozen atalak errazago ulertuko direlako ustea dugu.

1.1. Foru sistemaren deuseztapen legeen ondorioak

XIX. mendean zehar euskal hiru probintziek (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) Nafarroarekin batera, Erdi Arotik indarrean mantendu zituzten foru sistemak galtzen dituzte. Galera honek, gorabehera ugari ezagutu zituen, halaber gerrate karlistak, lege eta dekretu berriak, Nafarroaren banaketa e.a.

Foralitateari buruzko gaiak, euskal historiografian ezezik, estatu espainiarreko historiografia mailan ere azterketa sakonak egiteko aukera eskeini du. Hortaz, gure artean iritzi asko plazaratu da azken ehun urtetan gai honen inguruan. Eraberean, ikertzaile ugari, bere tesi doktora euskal foruen galeran oinarritu du C. de ECHEGARAY, P. de GOROSABEL, J. FERNANDEZ SEBASTIAN edo A. OTAZU besteak beste¹, bai historiaren ikuspegitik, bai eta soziologiaren, antropologiaren, zuzenbidearen, ekonomiaren edo politikaren hildotik ere. Jende honek guztiak burututako ikerketa eta azterketa sakon eta ezberdinak direla eta, egun, edonork du foralitatearekin zerikusia duten emaitzak eta ondorioak kontsultatzeko aukera, gure udalerrietako liburutegietan.

Garrantzitsua bezain eztabaidagarria suertatu den gai honek, iritzi kontrajarriak plazaratzeko aukera eskeini die ikerketa hauetan murgildu diren pertsoneri. Printzipioz, gure lanak, eztabaida horietatik ihes egin nahi du. Dena den hau ia ezinezkoa gertatzen da, *derrigorrezko soldaduskaren ezarpena* ikertzerakoan foralitate gaia abiapuntutzat hartzea ezinbestekoa baita. Hala ere gure helburu edo asmoa, XIX. mende bukaerako foralismo berriaren eta derrigorrezko soldaduskaren ezarpenaren arteko uztarketa era laburrean aztertzea da.

Lehen saiakerak Aintzin Erregimena bere sasoi onenean zegoenean izan baziren ere, XIX mendea izango da abolizioak ezarriko diren epealdia.

1839.ko urriaren 25era jo beharko genuke, bi artikuloz soilik osatutako legediak, Nafarroaren eta euskal hiru probintzien foruak baieztatzen dituela jakiteko. Hala ere,

1. J.M. de ANGULO.(1976) "*La abolición de los fueros e instituciones vascongadas*"2 Tomos. Madrilen 2.en ed.

J. FERNANDEZ SEBASTIAN.(1991) "*La génesis del fueros; prensa e ideas políticas en la crisis del Antiguo Régimen (País Vasco 1750-1840)*. Madrilen. Siglo XXI.

1839.ko urriaren 25era jo beharko genuke, bi artikuloz soilik osatutako legediak, Nafarroaren eta euskal hiru probintzien foruak baieztatzen dituela jakiteko. Hala ere, baieztapen hau, baldintzapenekoa izan zen;

Art.1 *“Se confirman los fueros de las provincias vascongadas y Navarra sin perjuicio de la unidad constitucional de la monarquía.”*

Art.2 *“El Gobierno tan pronto como la situación lo permita, oyendo antes a las provincias, propondrá a las cortes la modificación indispensable que en los mencionados fueros reclama el interés de los mismos.”*²

Lege honekin argi dago zer lortu behar zen; foru sistemen eta Espainiako batasun konstituzionalaren arteko uztarketa.

Hain guztia gerta zedin, 1839.ko legediak prozedura zehatza xedatu zuen; probintzia bakoitzeko agintariei edo ordezkariei entzun beharko zitzaaien. Hau da, lehenik, edozein erabaki hartu baino lehen, lau lurraldeetako Foru Aldundiekin hitzegin beharko zen. Ondoren, gobernuak prestaturiko lege proiektuak Espainiako parlamentuan eztabaidatu beharko ziren, eta azkenik gorteetako gehiengoek legedi berria onartu beharko zuten. Hortaz, prozedura oso argia zen: haseran Diputazioetan kontsulta, jarraian Espainiar parlamentura eta amaieran gorteetako adostasuna.

Nafarroako probintzian urriko legeak ezarritako prozedurak bi urte luze iraun zituen eta 1841eko udaran bere azkenera iritsi zen. Horrela, urte hartako abuztuaren 16ean, Nafarroaren eta Estatuaren arteko harremanak aldatuko eta berregituratuko zituen araudia onartu zen. Legedi berri hau *“Ley Paccionada”* ezizenez ezagutuko da.

Nafarroan hau guztia gertatzen zen bitartean, gainontzeko euskal hiru probintzietan berriz (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa), lehen aipatutako prozedura hori ez zen aurrera eraman. Izan ere, elkarrizketak, eztabaidak, iritzi kontrajarriak, azalpenak e.a. izanangatik ere, ez zen adostasunik gertatu.

Ondorioz, foru sistema berriaren eta espainiar estatuaren batasun konstituzionalaren artean eman beharreko uztarketa, Espainiar gobernuak dekretu baten bidez erabaki zuen. Hots, Nafarroan bezala, euskal probintziako agintariak eta gobernuak ez ziren akordio batera iritsi eta azken erabakia Madrilen hartu zen *“hemengoan”* iritziak kontutan hartu gabe.

Baldomero Espartero general liberalak, Espainiar gobernuaren erregente zenak, 1841 .eko urriaren 29an Euskal hiru lurraldeen foru sistemaren egituragabeketa zekarren dekretu berria izenpetu zuen.

Dekretu berriak eta *“Ley Paccionada”* delakoak aldaketa batzu ekarri zituzten euskal lurraldeetara: hala nola, aduanak kostaldera eramatea, aintzinako instituzio batzuen desagertzea, kanpotar agintarien etorrera eta espainiar Gobernuako ordezkari berrien onarpena. Baina egon zen bai bien artean ezberdintasun garrantzitsua, soldaduska gaiarekin zerikusia duena alegia.

“Ley Paccionada”-n argi azaltzen da, urte horretatik aurrera (1842) ordurarte inoiz egin ez zuten arren, nafar gazteak, penintsulako gainontzeko gazteen antzera, espainiar ejerzitoaren beharrak asetzerara abiatu beharko zirela. Hala egin zuten alegia.

2. M. MONTERO,(1993) *“La construcción del País Vasco contemporáneo”* Donostian. Txertoa.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako probintziei luzatutako dekretuan berriz, ez zen derrigorrezko soldaduskaren gainean aipamenik egiten. Horrenbestez, lurralde hauetako foru sistemaren oinarri nagusienak deuseztatu ziren arren, zenbait atalek ez zuten aldaketarik jasan.

Beraz, gipuzkoar, arabar eta bizkaitar gazteek, 1841eko dekretuari jaramon eginez, iraganean antzera, Espainiar ejerzitorea edo armadara ez joateko esentzia indarrean mantendu zuten.

"Ez dute zergatik bere probintzietatik kanpo zerbitzatu behar." (Recopilación 1697, Fueros).

Esentzio edo babes honek, 1876ko uztailaren 21eko legedia ezarri zen arte iraun zuen, azkeneko gerrate karlista amaitu zen arte alegia. Hortaz, hiru probintzia hauetako errebolta armatua, foruen behin-behineko edo erabateko deuseztapen legea inposatzeko aitzaki egokienean bilakatu zen.

Espainiar Estatuko agintari berriek, Cánovas del Castillo buru zela, euskal hiru lurraldeetan derrigorrezko soldaduska ezarri zuten. Horretarako, 1876ko uztailaren 21eko legedia banandu zen. Ezarpen honen ondorioz eta orduztik, gipuzkoar gazteak, urte batzu lehenago nafarrek egin zuten moduan, espainiako zerbitzu militarra betetzera derrigortuak izango dira.

*** Legea eta soldaduskari buruzko atalak:**

1 *"Los deberes de la constitución española han impuesta siempre a todos los españoles de acudir al servicio de las armas cuando la ley los llama, y de contribuir en proporción de sus haberes a los gastos del estado, se extenderán como los derechos constitucionales se extienden a los habitantes de las provincias de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa del mismo modo que a los demás de la nación."*

2 *"Las tres provincias referidas quedan obligadas desde la publicación de esta ley a presentar en los casos de quintos y reemplazos ordinarios y extraordinarios del ejército, el cupo de hombres que les corresponda con arreglo a las leyes."* ³

1.2. Soldaduskarako lege orokorrak

XIX.mende bukaeran espainiar gobernuak soldaduskaren inguruan eman zituen lege orokorrak hiru izan ziren:

- Lehena, 1878ko abuztuaren 25ean.
- Bigarrena, 1885eko uztailaren 11ean.
- Hirugarrena, 1896ko urriaren 21ean.

Hiru lege nagusi hauekin batera, militar agintariak eta gobernuak berak ere, zirkular, dekretu eta araudi ezberdin ugari izenpetu zituzten hogeitaz hamar urte horietan. Dena den, gure azterketa hiru lege nagusi horietan murgilduko da.

3. L. CASTELLS.(1987) *"Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración, 1876-1915"* Madrilen. 1987.

1.2.1. LEGEAREN MAMIA ETA EDUKINA

Soldaduskarako legeek hemezortzi kapituloetako egituraketa daukate. Bertan, errenplazu bakoitzean jarraitu behar diren pausoak zehatz mehatz xedatzen dira⁴.

1.2.1.1. Araudi Orokorrak

-Zerbitzu militarra derrigorrez bete behar den lana da, espainiar gizona zentzuzko behintzat behintzat.

-Urtero luzatzen den deialdira hemeretzi eta hogeituro urtetako gazteak azaldu beharra dute.

-Udal bando baten bidez errenplazuetako prozesua hasten dala jakinaraziko diete bere bizilagunei.

-Hamabost-hogeitamabost adin bitarteko gazteak ezin zuten atzerrira aldegin bi mila pezetako zihurtagiri bat lagatzen ez zuten bitartean.

-Zerbitzu honen iraupena zortzi urtetatik hamabi urte bitartera luza zitekeen eta horietatik soldaduek gutxienez erdia zerbitzu aktiboan igaro beharko zutekeen.

1.2.1.2. Zerrendaketak

Arestian aipatu dugun moduan, udalek udalerrri ezberdinetako gazteei urte horretan ejerzitorea joateko deialdia bandoen bidez egiten dut.

*“El alcalde presidente del Ayuntamiento constitucional de este Municipio hace saber(...) 1º desde hoy se presentarán todos los mozos que tengan la edad de 18 a 20 años. 2º Se presentarán los que hayan de cumplir la edad de 20 años entre enero y diciembre. 3º Aquellos que teniendo 20 años cumplidos y no debiendo pasar de 35, no hubieren sido comprendidos en ningún alistamiento anterior... Irún a primero de noviembre de 1879”*⁵

Handik gutxira, bizpahiru aste gutxi gora behera, udal guztiek errenplazu hori osatzen zuten gazteen zerrenda argitaratzen zuten.

Zerrenda hauen antolaketarako eta egituraketarako, udalak, soldauskarako araudiak agindu bezala, bitarteko ezberdinetaz baliatu ahal izango dira.

Alde batetik apaiz eta eliz-gizonen laguntza jasoko dute, hauek, gazteak zein urtetan jaio eta bataitu zituzten zihurtatuko baitute. Udal langileen laguntza behar-beharrezkoa izango da ere, biztanle erroldetan egiaztaketak egingo dituztelako; besteak beste konpotarren etorrerak, bertakoen bizileku aldaketak eta bestelako gora beherak kontutan hartuko bait dituzte. Azkenik, umezurtz eta karidadezko etxeetako ordezkarien lana baliogarria izango da udal ezberdinentzat, hauei esker leku horietan bizi zen gaztediaren berri zehatza izango baitute.

4. Soldaduskarako legedia 3 liburu hauetan topatu ditugu. 1878ko legea: F. ABELLA.(1880). *“Derecho administrativo y municipal”* IV Tomoan. Madrilen. 1885.eko legea: C. DIAZ.(1885) *“Manual de reclutamiento y reemplazo del ejército”* Iruñan. 1896ko legea: M. SERRANO PEREA.(1896)*“Manual de reclutamiento y reemplazo del ejército”* Madrilen.

5. I.U.A. 5. SEK. Igo NEG. L-2

Errenplazuak osatzeko eman behar ziren pauso guztietatik luzeena zerrendaketarena zen. XIX.mendeko gizartea kontutan hartuz, luzapen hauek normalizat har daitezke, egun ezagutzen eta erabiltzen ditugun baliabideak ezezagunak baitziren. Zerrendaketetan, umezurtz edo seme naturalen gorabeherak, kanpotarren gehiketak e.a. zirela medio, gehienetan azken momentuko zerrendaketak egin behar ziren.

Erabateko zerrendak osatzen zirenean, bertan zegoen gazte bakoitzari gutun bat bidaltzen zitzaion errenplazuetako urrengo ekitaldira azal zedin.

1.2.1.3. Esentzioak

XIX. mendeko soldaduskarako legediak bi motako esentzioak onartuko ditu: Denboraldiko ezentzioa ("Temporal" deritzona) eta Esentzio Osoa ("Total" ezizenez ezagutuko dena).

1go Taula ; ESENTZIOAK ORO HAR ⁶

URTEAK	IRUN	HONDARRIBIA	OIARTZUN	PASAIA
1877-81	103	62	49	26
1882-85**	76	54	40	10
1885-89	149	51	58	26
1890-94	128	72	56	29
1895-99	180	65	47	39
1877-1899	636	304	250	130

* Pasaian, San Pedro eta San Juan batera daude.

** 1885. urtean soldaduskarako legeak aginduta bi errenplazu eman ziren.

1.2.1.3.1. Esentzio osoak

Esentzio mota hau gutxi gora behera hamar arrazoi zireta medio lar zezaketen gazteek. Hala ere, burututako ikerketa kontutan hartuz, gure datuek besteak baino nagusiagoak ziren lau-bost arrazoi eskeini dizkigute.

-Garrantzitsuenarengatik hasi nahiean, garai hartako euskal lurraldeetan oihartzun handia izan zuen esentzio oso mota bat azpimarratu beharra dago. Esentzio hau liberal boluntarioei eskeinitakoa zen eta 1876ko uztailaren 21 .eko legediak hala xedatu zuen: "azken guda karlistan alderdi liberalaren alde borrokatu zuten soldaduek eta haien semeek, esentzio osoa lortzeko aukera izango zuten".

-Beste esentzio mota bat gaixotasun kronikoa izateagatik lortzen zena zen. Esentzio mota hau lortu ahal izateko lege militarrek ezarritako "Gaixotasunen zerrenda" begiratu behar zen. Zerrenda horretan gaixotasun askok esentzio osoa lortzeko aukera ematen bazuen ere,

6. Datu hauek Irun, Hondarribia, Oiartzun eta Pasaiaiko udal artxiboetatik atera ditugu. E Sek. 5. Neg. I Atala.

gure datuen arabera, gehien azaldu zirenak, besteak beste gutxituak (deficientes), hanka motzak eta begietako gaitzak izan ziren.

Senitartekoren bat, aita edo anaia, soldaduska egiten egoteak, esentzio osoa lortzeko aukera eskeintzen zuen ere. Hilda beretik jarraituz, Goardia Zibila edo Mikelete izanagatik ere, esentzio osoa lortzen zen.

-Eraberean, legeak apaiz-gizon, praile eta bestelakoei esentzio osoa ematen zien.

-Esentzio osoa, itsasoko langileen, preso zeuden gazteen eta mehategietako langile zirenen artean zabaltzen da ere.

1.2.1.3.2. Denboraldiko esentzioak

Hona hemen laburdildurik soldauskarako legediak esentzio mota hau lortu ahal izateko ezartzen dituen baldintzak eta egoerak.

Denboraldiko esentzioen artean, orain arte ikertutako udalerrietako datuei jaramon egínez, gazte gehienak guraso alargun eta behartsua izateak eskeintzen zuen esentzioan babestu zirela azpimarratu behar da. Esentzio hau lortu ahal izateko, zihurtagiri fidagarria behar zuten soldadugaiek eta bertan, familiaren datuak argi eta garbi azaldu behar ziren: jaiotegunak, hildakoen datak, bestelako anai-arrebak e.a.. Eraberean, esentzio mota hau eskatzen zuen gazteak, familiaren euskarri bakarra zela eta bere lanaren ondorioz haren guraso eta anai-arrebak bizitzen zirela frogatu behar zuen.

Esentzio mota hau beste hainbat arrazoi medio zirela lor zezaketen soldadugaiek

Alde batetik, esentzio osoa lortzeko adinako gaixotasunik ez zuen gizasemeak (dardarak, zotinak, indar gutxi, estulak eta abar.) denboraldiko esentzioa lortzeko aukera izango zuen, kasu guztitan lortzen ez zen arren.

Altueran baxuak zirenek, esentzio bera lortu ahal izango zuten ere. Gaixotasuntzat ezin har daitekeen hau, metro terdira iristen ez ziren gazteei egokitzen zitzairen. Horrela, hainbat udalerritan neurtzeko tresna berria erosi zuten, Irunen, Hondarribian besteak beste.

Azkena, ikasleei zegokiena izango zen; soldaduskarako legeek ikasketak burutzen ari ziren gazteei denboraldiko esentzioa eskeintzen zieten.

Denboraldiko esentzioa lortzen zuten egoera hauek guztiek, urtero berrizatuak izan behar ziren, egoera eta baldintza horiek berdin jarraitzen zuten ala ez egiaztatzeko. Aldaketak urte batetik bestera eman zitezkeen: ikasketak amaitzea, guraso alarguna hiltzea, anairen batek 17 urte betetzea, neurrian haztea e.a.

Esentzioen ekitaldiaren garrantzia udalerrientzat ezinbestekoa zen. Ondoren zetozen pausoak kontutan hartuz, esentzioen pausoa argi geratu behar zelako, udal agintariekin batera ekitaldi honetan militar ordezkariak, mediku jakitunek, eliz-gizonek eta gazte soldadugaien gurasoek parte zuzena hartzen zuten.

Edozein esentzio mota nahiz Osoa zein Denboraldikoa lortu ahal izateko, derrigorrez zihurtagiriak ekarri behar ziren. Zihurtagiriak mota askotakoak izan zitezkeen: jaioteguna eta adina adierazten zutenak, gurasoen eta norberaren nortasuna azaltzen zutenak, medikuen oneritza zekartzatenak, gobernu zibila edo militarren baimena zutenak e.a. Kasu askotan zihurtagiriekin batera lekukoen iritziak eta errenplazuko beste gazteen onarpena, ezinbestekoak ziren esentzioa aurrera atera ahal izateko.

2. Taula ; ESENTZIO MOTAK (1877-1899)

ESEN. OSOAK	650 670	DENBORALDIKO ESEN.
Liberalen aldekoak guda karlistan	454 505	Guraso alargun eta behartsuen kasuak
Gaitz kronikoak	147 135	Gaixotasunak
Altuera baxukoak	20 14	Altuera baxua
Bestelakoak (Mikeletea, Apaiz edo praile, marinela, presondegian, hildakoa e.a.)	29 16	Bestelakoak (Aitak edo Anaiak soldaduskan, ikasleak...)

* Oarso-Bidasoako eskualdean aurkitzen diren Irun, Pasaia, Hondarribia eta Oiartzun udalerrietako datuak bildu dira.

1.2.1.4. Saillkapena

Soldaduskarako saillkapenetik irteten ziren gazteak, bitan bakarrik banatuko ditugu, nahiz eta legeetan hainbat ezizen gehiago izan: alde batetik, esentziodun soldadugaiak (Osoak edo Denboraldikoak) eta bestetik, zozketatu zitezkeen soldaduak.

Saillkapenaren ekitaldia esentzioen osagarritzat har zitezkeen. Bertan, bai udaletako agintariekin batera militar

ordezkariak, bai urte horretan errenplazuan inplikaturik zeuden gazteek, bai eta gazteen senitartekoek, parte hartzen zuten.

Orain arte izan diren soldaduskarako pauso guztietan adierazi ez badegu ere, udal ezberdinetako idazkariak soldaduskaren prozesu osoaren berri zehatza hartzen zuela komenigarria da adieraztea. Idazkariak, ekitaldi guztietako aktak idatziz, batik bat gerora begira sor zitezkeen eztabaidak eta kontsultak argitzeko aukera emango zuen.

1.2.1.5. Zozketa

Zozketa, saillkapenaren ondoren zozketa zitezkeen soldaduekin egingo zen, bai Espainian, bai eta foru sistemaren deuseztapen legeen ondoren Euskalerriko udalerritan.

Soldaduskarako legediak zozketa hau aurrera atera zedin prozedura bat xedatu zuen: udalerrri guztietan bi kutxa prestatzen ziren, batean zozketatuko ziren gazteen izen eta abizenak sartzen ziren, bestean berriz gazte adinako zenbakiak zituzten papertxoak. Jarraian, 10 urtetako bi mutil koxkorrek, banan-banan izen eta zenbaki bat aterako zuten, den-denak amaitu arte.

Prozedura honen bidez, zozketa zitezkeen soldadugaiei zenbaki bat suertatzen zitzairen zoriz. Zenbaki hau oso garrantzitsua zen. Dena den bere garrantzia urrengo atalean aztertutako da.

1.2.1.6. Probintziako kupo osaketa eta kaxarako sarrera

Gipuzkoar gaztedia, 1877. urtetik aurrera ejerzitoaren beharrak asetzerari abiatuko da. XIX. mende haseratik espainiar estatuko gainontzeko probintzietako gazteen moduan.

Aurreko atalean adierazi den eran, soldaduskara joango ziren gazteak zozketa zitezkeen gazteetatik irteten ziren, hau da esentzio lortu ez zuten gazteak ziren ejerzitara zihoazenak.

Dena den, bai zozketan ateratzen zen zenbakia, bai eta probintzia bakoitzari eskatzen zitzaion gazteen kopurua kontutan hartu beharko ziren.

Spainiar ejerzitoak eta haren izenean militar agintariak, urtero behar ziren soldaduak, aldezkarri ofizialetan argitaratzen zuten zirkular berezi batzuen bidez eskatzen zituzten. Hortaz, zerrendatutako gazteen arabera, probintzia bakoitzari kupo bat eskatzen zitzaion, gero probintziak kupoa udalerriz-udalerriz osatzen zuten proportzionalki noski.

Pauso hau kaxarako sarrerarekin amaitzen zen. Behin kaxan zeudela, erabakitzen zen zein lekutan bete beharko duten soldaduska; Donostian, penintsulako edozein kuarteletan edo kolonietako base ezberdinetan, adibidez Ipar-Afrikan, Kuban, Filipinatan e.a.

Horrela, gure herrietako gazteak udalaren aginpean egotetik militar ordezkarien "babesa" izatera igarotzen ziren.

1.2.1.7. *Iheslari eta iheskariak*

Orain arte aipatu ez den ezizen hau soldaduskarako prozesura azaldu ez ziren gazteek jasotzen dute; "zerrendaketatik kaxako sarrera bitartean, edozein arrazoi medio dala, gazteak ez badira ekitaldi batetik aurrera udaletxean azaltzen, iheslari eta iheskariak bezala sailkatuak izango dira" ⁷.

Errenplazuetako legedi guztiek, atal oso bat eskeintzen zuten gai honi zegokionez. Eraberean, legediak berak kasu hauetan jarraitu beharreko pausoak eta eginbeharreko epaiketak argitzen zituen.

Iheslariak, soldaduska ez egiteagatik ihesaren bideari ekiten diotenak dira. Gehienetan zerrendaketak baino lehen ihes egiten zuten. Iheskariak berriz, zerrendaketan eta esentzioetan azaltzen ziren, bai eta gainontzeko pausoetan ere. Horrela, iheskari ezizena kaxako sarrerara azaltzen ez ziren gazteek izango zuten. Iheslari eta iheskarien egoera legez kanpokoa zen (gaur egungo intsumisoen antzekoa gutxi gora behera).

Gazte hauei txosten berezia eraikitzen zitzaaien, non haiei buruzko datuak biltzen ziren: norbere jakingarriak, senitarteko eta lagunaren datuak, ihesaldiaren eguna, arrazoiak eta jarraitutako norabidea, jantzita zeraman arropen deskribapena, laguntzarik jaso zuenentz e.a.⁸Datu hauek guztiak epaiketa zorrotz eta sakon baten ondoren lortzen ziren, non lekuko, lagun eta soldadugai ziren gazte batzuen testigantzak jasotzen ziren, bai eta gazte hauen gurasoenak ere.

Soldaduska betetzeari uko egiten zioten gazteentzat ondorio larriak zeuden.

Alde batetik, ejerzitoak eskeintzen zituen "pribilegioak"-en eza, hots, iheslari edo iheskarientzat ez dago berrerospenik edo ordezkaketarik (redención a metálico), ez eta esentziorik edo gehiegizko kuporik ere.

Bestetik, gazte horren bilaketak eta harrapaketak sortarazi zitzaizkeen gastuak (inoiz harrapatuz gero) ihesean joandakoak ordaindu beharko lituzke edo haren gurasoek.

7. 1878ko legedian puntu hau XIV. kapituloan azaltzen da. 1885.eko eta 1896.eko legeetan berriz X. kapituloan zehaztuko da iheslarien egoera. Op. cit. F. ABELLA, C. DIAZ eta M. SERRANO PEREA.

8. P.U.A. E. Sek. 5. Neg. I atala L-4 "Testimonio del expediente de prófugo realizado al mozo Ceferino Villalón Dombrez, por no haberse presentado al llamamiento y declaración de soldados, en el año 1897".

Hala eta guztiz ere, zigor ekonomiko honetaz gain, soldaduskarako legediak, harrapatzen ziren iheslari edo iheskarientzat norabide bereziak zituen prestaturik; Ipar-Afrika, Kubako irla, Puerto Riko edo Filipinak. Hemen gazte horiek, hiruzpalau urtetako soldaduska izango zuten zain.

Azkenik esan, norbaitek iheslari bat ekarri edo haren aurkikuntzan lagunduz gero, bera edo bere semea soldaduska egitetik aske geratzen zela.

1.2.1.8. Berrerospenak eta ordezkaketak

Diruak aspalditik gizarte gehienetan, sailkapen "naturala" sortarazi du eta XIX. mendeko soldaduskaren kasuan ez zen kontrakoa gertatu.

Errenplazuetako legedia jarraituz gero, soldaduskatik aske geratzeko zenbat ordaindu behar zen ikus daiteke: bi mila pza ordainduz kolonietara joateko aske gera zitezkeen gazteak, penintsulan sodaduska ez betetzeko mila eta bostehun pza ordaindu behar ziren.

Hasiera batean, dirua ezezik, soldadugaiek haien ordezkokoak ere ekartzen zituzten. Ordezko hauek ezin ziren esentziodunak izan. Urteak aurrera joan ahala, ordezkari horiek ekartzeko eta bilatzeko ardura agintari militarrek hartu zute beren gain, eskatutako pztak ordaindu zirela ziurtatzerakoan.

Pauso honek sortaraz zezakeen atzerapena eta luzapena ekiditzeko asmoz, diru ordainak epe labur batean egitea gomendatu zen, gehienetan kaxarako sarreran.

1.2.1.9. Zigorren atala

Iheslari iheskarien pausoa azaldu bada ere, XIX. mendeko soldaduskarako legeek zigorrak atal berezi batean zehazten dituzte.

Legeak gehienetan ihesean dohazen soldadugaiei zegozkien zigoretaz mintzatzen dira. Arestian iheslari/iheskari atalean zigorren bat edo beste aipatu den arren, berritasunak aurki daitezke.

Garrantzitsuenetakoa honako hau izango litzateke: iheslari gazteak norbaiten laguntza jaso zuela ziurtatuz geratuz gero, sendiarentzat, apaiz-gizonarentzat, adiskiaientzat edo udalerriko agintariarentzat gartzelako zigorra egongo zen.

1.2.1.10. Azken alegazioak eta egoera aldaketak

Lehen zerrendaketetatik zozketetaraino udalerrietako saihoek lauzpabost hilabete iraun zezaketen. Epe horren tartean egoera aldaketak gerta zitezkeen: azken orduko hildakoak (gazteak eta gurasoak), gaixotasunak, ordezkaketak, berrerospenak e.a.

Errenplazuko gazteek kaxako sarrera urte horren amaiera aldean egingo zutela jakinik, erraz uler daiteke noizbehinka egoera berriak gertatzea ⁹.

9. O.U.A. E Sek. 5. Neg. I Atala L-4 "1884eko errenplazua osatzen duen gazte bat hilk gertatzen da. Horren ondorioz zerrendaketan hurrengoa dena joan beharko zen ejerzitara".

H.U.A. E Sek. 5. Neg. I Atala L-2 "1893ko errenplazua osatzen duen mutiko batek gaitz bat du begietan, hilabete bi pasa ondoren begia kentzen diote, hortaz esentzio osoa lortzen du. Bere ordezkari zerrendetan hurrengoa dena doa soldaduskara".

1.2.2. LEGEEN ARTEKO EZBERDINTASUN NABARMENENAK

Arestian aipatu den moduan, aztertzen ari garen XIX. mendeko azken laurdenean Estatu espainiarreko Gobernuak, derrigorrezko soldaduskaren inguruan hiru lege orokor ezberdin plazaratu zituen. Bi hamarkada laburretan, gipuzkoar gazteak eta bertako udalerrietan agintari direnek, 1878ko abuztuaren 21 .eko legea, 1885eko uztailaren 17ko legea eta 1896ko urriaren 21eko legea ezagutu eta aplikatu behar izan zituzten.

Egiturari dagokionez hiru legeek antzekotasun nabarmena dute. Hemezortzi kapituloetan zehar lege orokor batetik bestera aldaketa gutxi soma daiteke. Oro har atal gehienak errepikapen hutsa besterik ez dira.

Hortaz berritasunak oso puntu gutxietan izan ziren, Hona hemen laburbildurik 1878ko, 1885eko eta 1896eko legeen artean dauden aldaketa garrantzitsuenak.

1.2.2.1. Adin aldaketak

Lehen berritasunak, errenplazuak osatu behar zituzten gazteen adinari erantzuten dio.

1878ko legeak soldadugaien adina 20 urtetan ezarri zuen, beste bi legeetan ordea, adina 19 urtetan ezartzen da. Ondorioz, 1885ean espainiar ejerzitorea joateko bi errenplazu egin ziren: bata urtarrilean 20 urtetako gazteekin eta bestea irailean 19 urtetakoekin.

1.2.2.2. Zerbitzuaren iraupena

Gaur egungo ikuspegitik, XIX. mendeko soldaduskak atal honi dagokionez, harridura bat baino gehiago sortaraz dezake, garai hartan zerbitzu militarrek urte batzuk irauten baitzituen.

1878ko legediak, zortzi urtetako zerbitzua ezartzen zuen. Haietatik lau zerbitzu aktiboan igaro beharko ziren eta beste lau erreserban. Baina 1885eko eta 1896eko-ek aurrekoaren epea luzatu zuten. Horrela, legedi berriek zerbitzua 12 urtetan ezarri zuten, haietarik sei zerbitzu aktiboan egin beharko zituzten gure udalerrietako gazteek eta beste sei erreserban.

1.2.2.3. Sailkapenak

Atal honetan izan ziren aldaketa eta berritasun guztiak, soldadugaiak sailkapenaren ondoren hartuko zituzten ezizenei zegozkien.

1878ko legearen arabera soldaduak bitan sailkatzen ziren: soldadu aktiboak eta erreserbarako soldaduak. Lehenak soldaduska betetzera abiatuko ziren eta bigarrenak denboraldiko esentzioen babesa zuten eta baita gehiegizko kupoak eskeinitako "askatasuna".

1885eko legedian gauzak sinpleagoak baina aldi berean ulergarriagoak egiten dira. Alde batetik zozketatu daitezkeen soldaduak egongo ziren eta bestetik Esentziodunak (Kasu honetan bi motatakoak, Denboraldikoak eta Osoak).

1896eko lege orokorrak aldaketa txiki bat ekarri zuen soilik. Denboraldiko esentziodun soldaduek izen berri bat hartuko dute, baldintzako soldauena hain zuzen ere.

Gure azterketa ulergarria eta arinagoa izan dadin soldaduen sailkapena erreztu dugu, horregatik bitan bakarrik sailkatu ditugu: Zozketatu zitezkeen soldaduak eta esentziodunak.

Atal hau amaitzeko, garrantzitsu izan ziren beste soldadugai batzuetaz mintzatu behar gara, iheslari eta iheskarietaz hain zuzen ere. Hala ere, hiru legedietan berdina azaltzen dira hortaz ezberdintasunik ez dago.

1.2.2.4. Zozketa motak

Ikertzen ari garen epealdiko legeek diotena kontutan hartuz, bi motatako zozketa bereiz daitezke. Lehena, udalerrietan bertan egiten zen, zerrendaketak osatuak zeudenean. Bigarrena, kaxan egiten zen probintziako gainontzeko gazteekin batera.

1878ko eta 1896eko legeen arabera, soldaduen zozketa udalerrri bakoitzean zerrendatutako gazteekin egiten zen. (Zozketaren prozedurari buruz zozketaren atalean mintzatu gara).

1885eko legan bi dira ezberdintasun nagusienak: alde batetik, zozketa zozketa zitezkeen soldaduekin eta iheslariekin egiten zen, esentziodunak ez ziren honetan sartzen, eta bestetik, zozketa udalerrri bakoitzean egin beharrean, probintziako gainontzeko soldadugaiekin batera egiten zen, behin kaxara zuzentzen zirenean.

2. OARSO-BIDASOAKO ESKUALDEKO UDALERRIAK, SOLDADUSKAREN DINAMIKAN

Aurkeztera goazkizuen datuak, bai gertaerak bai eta egoerak ere, Gipuzkoako eskualde hori osatzen duten hainbat udalerritako artxiboetan bildu eta ikertu diren dokumentuetan oinarritzen dira. Gure asmoa, hasiera batetan behintzat, Oarso-Bidasoako eskualde osoko datuak aurkeztea zen baina, Errenteria eta Lezoko udal artxibategietan XIX. mendeko errenplazuekin zerikusia duen dokumentorik ez da azaltzen. Dagoen gutxia ez da nahikoa izan datu fidagarriak plazaratzeko, horregatik gure ikerketa gehienbat Hondarribia, Irun, Oiartzun eta Pasaiaiko udalerrietan murgildu da.

Kasu guztietan iturri berak erabili ditugu, militarrekin harremana deritzona, artxiboetan E.5.l "Reemplazos", eta Udalerriko aktak Artxiboan A.1 "Actas".

Garai hartako Gipuzkoako Aldizkari Nagusia (B.O.P.) eta Egunkari batzu kontsultatu ditugu ere. Hemendik ateratako datuak artxiboetan lortutakoen osagarriak izan dira gehienetan.

2.1 Egoera berriaren aurrean, udalerrietako agintarien erabaki "ikusgarriak"

2.1.1. UDALERRIEN DIMISIOA

Lehenago aipatu den eran, 1876eko uztailaren 21eko Foru sistemaren deuzestapen legeak, ordurarte Gipuzkoan ezezaguna

zen derrigorrezko soldaduska ezarri zuen. Horren ondorioz, 1877ko errenplazua Gipuzkoako udalerrri guztientzat historian zehar lehena izango da.

Iragartutako errenplazua Gipuzkoako udalerrietako gazteentzat urte hartako urtarrilean hasi zen. Baina hilabete horren erdialdera Oiarso-Bidasoa eskualdea osatzen duten udalerrri guztiek : Hondarribia, Irun, Oiartzun, Errenderia, Lezo eta Pasaia, soldaduskarako prozesua bertan behera uztea erabaki zuten ¹⁰.

Dirudienez, Gipuzkoako udalerrri guztiek hartu zuten erabaki hau 1877ko urtarrilaren erdialdean. Dena den, gai honek ikerketa sakonagoak eskatzen ditu inolako ondorio goiztiarrak atera aurretik.

10.H.U.A. A Sek. I Neg. Aktak L-194. I.U.A. A Sek. I Neg. Aktak L-97. P.U.A. A Sek. I Neg. Aktak L-9 eta L-6.

Udal hauen ustez, soldaduskarako legedia berria eta haren atzetik zetorren prozesua, Gipuzkoako ohituren aurka zihoan, hau da foruen aurka. Horregatik, probintziako gobernuari dimisioa eskatu zioten eta bide batez errenplazuetako pausoekin ez jarraitzearen erabaki zuten.

Udalerrietako zinegotzi guztiek hartutako erabakia, udal agintarien ikuspegitik arrazoi honi erantzuten zien : soldaduskaren legedia berriaren eraginez probintziaren interesak oso kaltetuak iritertzen ziren. Horrela, probintziari leialtasuna ziotela erakusteko dimisioa aurkeztea ezinbestekoa izan zuten ¹¹.

Gobernu zibilaren erantzuna azkarra izan zen eta urrengo egunean udalerriek hartutako erabakia onartezina zela azpimarratuz, errenplazuetako ekitaldiekin jarrai zezaten eskatu zien. Horretaz gain, gobernadore zibilak zera gaineratu zuen; dimisio horrekin udalaren funtzionamendu gutzia oztopatzen zela eta beraz hori onartezina zela.

Egun gogorrak eta tentsioz beterikoak bizi izan ziren 1877ko urtarrila eta otsaila bitartean Gipuzkoako hainbat udalerrian. Gobernu zibilak indarra erabiliko zuela mehatxatu zuen arren, ikertutako udaletan ez zen halakorik gertatu.

Azkenean konponbidea aurkitu zen, honela, otsailaren erdialdera dimisioa altxa zuten udalerriek eta soldaduskarako ekitaldiekin jarraitu zuten. Baina konponbidera, bai Gobernu Zibilak, bai Foru Aldundiak, bai eta udalerriak ere, elkar akordio batekin heldu ziren.

2.1.2. 1877KO ERRENPLAZUAREN BERREROSPENA

Lehen errenplazurako, Espainiako Ejerzitoak Gipuzkoako probintziari seirehun gazte eskatu zizkion kupo gisa.

Hala ere, soldaduskarako legedietako atal batean zetorrena probetxatuz, udalek eta Diputazioak, berrerospenen eta ordezkapenen bidez, probintziako gazte guztiak soldaduskara ez joatea lortu zuten:

‘El reemplazo del año 1877 no se efectuó por haber redimido la diputación a todos los mozos de la provincia de acuerdo con los ayuntamientos, evitando así la primera leva impuesta por la Ley del 21-JUL-1876’ ¹²

Akordio horretan diruaren ordaina, bai Foru Aldundiaren eta Udalerrien arteko gauza zela azpimarratzen zen. Dena den, herritarren laguntza ere onartzen zen haien seme kuttunak berrerosteko.

Ikertutako Udalerrietan pauso edo egoera ezberdinak eman ziren. Horrela, adibidez Pasaian urte horretako gazteak soldaduskara joan ez ziren esaten duen domukentorik ez dago Hondarribia, Irun eta Oiartzunen berriz ordainketaren ziurtagiriak topatu ditugu eta aktetan ere jasoa dago hau.

1877ko gertaera “xelebre” hauek ez ziren gainontzeko hogeitalau urtetako errenplazuetan errepikatu. Ez dago argi gogoz ala gogoz kontra egiten zuten, baina hemendik aurrera udalerrietako agintariek soldaduskarako ekitaldiak egin zituzten eta dagoeneko berrerospenak gazteei zegozkien eta ez udalerriei.

11. H.U.Aeta I.U.A. Ibidem.

12. O.U.A. E Sek. 5. Neg. I Atala L-1.

2.2. Errenplazuetako prozeduran somatutako jokaerak

Gure helburuetariko bat derrigorrezko soldaduskarako prozesuan, protagonista nagusi diren gazteen iritzia eta jokabideak aztertzea baldin bada, hauek ejerzitoarekiko izan zuten jokabidea azaldu beharra dugu.

Baina, ezer aipatzen hasi aurretik gure proposamenak zailtasun ugariekin topo egin duela adierazi nahi dugu. Gazte hauen jarrera zein izan zen jakitea ez da erraza, idatzita ezer gutxi utzi baitute, Hala ere, beren pentsamoldeak zeharkako bideetatik ikertzen saiatu gara.

Udaletako aktetan soldauskarako gaia baztertuta egon da, garai hartako agintarientzat beste "gauzak" izan baitira garrantzitsuagoak.

Dena den, soldaduskarako prozesuan zehar gertatutako hainbat gorabehera eta egoera, mesedegarri izan dira gure helburu nagusi horri erantzun eta ondorio batzu ateratzeko garaian.

Horretarako, kontutan hartuko dugu zerrendaketaren lehen urratsetik kaxako sarreraraino gazte hauek izan zuten jarrera eta jokabidea. Bidebatez, haien senitartekoak eta lagunak izandako portaera ere aztertuko dugu, kasu gehienetan gazteen portaera bezain adierazgarriak dira eta.

2.2.1. AMAIERARIK GABEKO ZERRENDAKETAK

Soldaduskara joateko prozesu osoan zehar, zerrendaketa zen atal luzeena, horretarako arrazoi batzu daude.

Alde batetik, ezintasun teknikoak; XIX. mendeko gizarteak ez zituen gaur egungo abantailak ezagutzen. Bi hilabete pasatzen ziren lehen zerrenda argitaratzen zenetik, behin-behineko zerrenda osatzen zen arte.

Lehen zerrendan, urte horretan 20 edo 19 urte zituzten gazte guztiak azaltzen dira. Hurrengo zerrendan, egiaztapen zorrotzak egin ondoren, hildakoak eta marinela zirenak (azken hauek Pasaian eta Hondarribian azaldu zaizkigu baina ez urte guztietan) kentzen ziren. Ondoren, kanpoan bizi zirenak kentzen ziren. Jarraian, udalerria etorritakoak gehitu beharko ziren. Azkenik seme-natural, umezurtz eta "expositoen" kasuak banan-bana egiaztatuta behar ziren.

Honen ondorioz ulergarria gertatzen da, behin-behineko zerrendak osatu arte hainbeste denbora igaro izatea ¹³.

Batik bat legearen berritasunaren eraginez egon zen jende "despituaren kasua ere. Dena den, jende "despistatua" 90ko hamarkadan azaldu zen eta legedia orduan ez zen hain berria.

Egoera berriaren adierazgarria Oartzungo udalerrian topatu dugun dokumentu batean laburdill dezakegu, konkretuki, Gobernu Zibilak udalerriko agintariei soldaduskarako deialdiak euskaraz ere idatz zitzatela eskatu zirenean.

" En la lengua materna de los vecinos que no es otra que el vascuence "

13. I.U.A.E. Sek. 5. Neg. I AtalaL-(104,109,110,127). I.U.A.Sek. I Neg. Aktak L-(4,6,7,16,17). O.U.A. E. Sek. 5. Neg. I Atala L-(1,2,3,5,6,8,1 1). H.U.A. A. Sek. I Neg. Aktak L-203.

Ezintasan teknikoei gazte batzuen jokabidea gehitzen badiegu, zerrendaketaren pausoa ia amaitezina zen atal batean bihurtzen zen.

Baziren gazte batzu, urte osoa inungo zerrendetan azaldu gabe igarotzen zuten. Kasu askotan hurrengo deialdian edo handik urte gutxietara norbaitek egoera salatzen zuen (oro har beste soldaugairen bat edo haren senitartekoren bat), eta udal agintariak izandako hutsuneaz ohartzen ziren.

“J. Martín Rivera habitante de Irún denuncia al mozo J. M^a. Martierena para su inclusión en el alistamiento y pide por esa causa exención para su hijo”¹⁴

Kasu hauetan guztietan azaldutako gazteak hurrengo deialdian zerrendaburu izango ziren, legeak ala aginduta noski.

Hau guztia kontutan harturik, hasierako zerrendaketan izandako gazte kopuruak, amaierako zerrendako kopuruarekin konparatuz, gorabehera nabarmenak izango ditu.

Zerrendaketen inguruan Udalerrien artean ere ezberdintasunak aurki daitezke. Honela, Oartzunen ia urtero lehen zerrendatik behin-behinekora 25/35 gazteen tartea zegoen. Gainontzeko udalerritan berriz Irun, Hondarribia eta Pasaian, inoiz ez zen 20-ra iristen gora-behera hori.

Dena den, gure azterketa behin-behineko zerrendaketetan jasotako datuekin hasi dugu. Horregatik, hona hemen, ikertutako udalerrietan bildu ditugun datuen laburpena;

3. Taula ; BEHIN BEHINEKO ZERRENDAKETAK

URTEAK	HONDARRIBI	IRUN	OIARTZUN	PASAIA
1877-81	153	317	222	60
1881-85	151	270	200	35
1885-89	171	398	224	67
1890-94	191	369	195	58
1895-99	188	410	209	83
1877-1899	854	1764	1050	303

Oarso-Bidasoako eskualdean orotara 3871 gazte zerrendatu ziren XIX. mendeko azken laurdenean. Udalerri hauetan Gipuzkoako probintziaren biztanlegoaren %11 baino gehiago bizi zen. Portzentai txikia izan arren, azaltzen zaizkigun datuak bere garrantzia dute, publikatzen diren mota honetako lehenengoetakoak baitira.

2.2.2. ESENTZIOAK

Errenplazurako bigarren pauso honetan, aurrekoan baino gehiago soma eta ikus daiteke soldaduskara joan behar zuen gazte askoren eta haien senitartekoen jokabideak. Kasu horiek aztertu aurretik jo dezagun bildutako datuek diotena azaltzera.

14. I.U.A. E Sek. 5. Neg. I Atala L-107.

2.2.2.1. Esentzioak orohar

4. Taula: ESENTZIOAK ZERRENDATUTAKO KOPURUEKIKO

ESENT.	HONDAR.	IRUN	OIARTZUN	PASAIA	DENERA
OSOAK	150	342	85	73	650
DENBORA.	154	294	165	57	670
Orotara	304	636	250	130	1320
	% 35'5	% 36	% 24	% 43	% 34

Zenbaki hauek kontutan harturik zera esan dezakegu, zerrendatutako gaztediaren % 34-a baino gehiago esentzioaren babesean izan zela, hots, zerrendatutako 3 gazteetatik batek esentzia izango du, bai osoa bai denboraldikoa.

Hala ere, aurreko taulak argi adierazten duen moduan esentzioen portzentaiei dagokionez udalerrien artean ezberdintasun nabarmenak jaso ditugu. Adibidez Pasaian %40-tik gorako esentzioak izan ziren, Oiartzunen aldiz, izandako esentzioak ez dira %25-ra iristen. Ezberdintasun hauek aurrerago erantzuten saiatuko gara.

Legedien atalean azaldu dugun eran, Denboraldiko esentzia lortzeko gure udalerrietako gazteak modu ezberdin batzuz zituzten: guraso alargun edo behartsua izatea, gaixotasun baten bat sufritzea, 1'54 zm altuera baina gutxiago izatea, beste arrazoi askoren artean noski.

Denboraldiko esentziok ezezik Osoak ere lortzeko aukera zegoen. Azken hauen artean gehien erabili zirenak, liberalen aldeko bolondresak eta gaixotasun kronikoak izan ziren.

5. Taula ; DENBORALDIKO ESENTZIOAK ETA OSOAK
UDALERRIZ-UDALERRI 1877-1899.

DENBORALDIKOAK	Hondarribia	Irun	Oiartzun	Pasaia
Guraso Alargunak	105	238	122	40
Gaixotasun orokorrak	39	65	38	5
Neurri baxukoak	6	6	6	2
Bestelakoak	14	6	5	4
OSOAK				
Liberal Bolon.	91	265	34	64
Gaixotasun kronikoak	39	65	38	5
Neurri baxua	6	6	6	2
Bestelakoak	14	6	5	4

Datuen arabera esentzioa lortzen zuten gazteen taularen laburpena hauxe izango litzateke Oarso-Bidasoako udalerrii dagokienez:

- %38'4 guraso alargun eta behartsuak.
- %34'4 liberalen aldeko bolondresa izatea.
- %21'4 gaixotasun ezberdinak izatea.
- %2'4-ak altuera baxua.
- %3'4ean bestelakoak.

Dena den, udalerrri batetik bestera aipatutako datuak izugarri aldatzen dira.

Guraso alargunen eta behartsuen kasuak Hondarribian, Irunen eta Pasaian %35-aren ingurukoak izan ziren, Oiartzunen aldiz ia %50-ra iristen da.

Gaixotasun kasuetan antzeko zerbait soma daiteke: Hondarribia eta Irunen %20-aren ingurukoak, Oiartzunen %30 eta Pasaian %13-ko portzentaila.

Hala ere, liberalen aldeko bolonbresa izateak eskeintzen zuten esentzioan aurkituko ditugu ezberdintasun nabarmenenak. Pasaian adibidez, arrazoi hau medio zela ia esentzioen %50 lortu ziren. Irunen %40-tik gorako portzentaia izan zen eta Hondarribian doi-doi %30-ra iritsi zen portzentaila. Oiartzungo udalerrian ez zen %14-ra iritsi.

2.2.2. Esentzioen babespean

Lehenago adierazi dugun eran, zerrendatutako gazteen

heren bat ez zen soldaduskara joan esentzioen babesa lortu zuelako. Beraz, esentzio pausoaren garrantzia nabaria da eta horrela ulertu zuen garai hartako gizarteak.

Soldaduskarako legediek zorrozatasuna eskatzen zuten errenplazuetarako pausoa egiteko garaian. Agintariei prozedura eta legeak zuzentasunez jarraitzea eskatzen zitzairen behin baino gehiagotan ¹⁵.

Altuera baxua zuten gazteak zalantzarik gabe neurtu ahal izateko, udalerrri gehienek "*El Método Cazorla*" deritzon sistema inposatu zuten 1880 aurrera. Irun, Hondarribia eta Oiartzungo udalerrietan zera uste zen:

"Cazorla." Jaunak asmatutako tresnarekin "*se cortarian abusos e irregularidades*" eta "*Se tallarian mozos en toda regla*" ¹⁶.

Azken guda karlistan liberal alderdikoekin borrokatu zutenek esentzioa ere lortzen zuten. Esentzioak ez ziren udalerrri guztietan maila berean izan, adibidez Pasaian eta Irunen nagusi izan ziren arren, Oiartzunen eta Hondarribian ez zen hala gertatu.

Esentzio hau lortzeko gazteek gudako kapitainek izenpetutako edo Gobernu Zibilaren adostasuna zekartzaten zihurtagiriak izan behar zituzten.

1896an liberalen zerrendak argitaratu ziren, batik bat liberal izandakoen semeek esentzioa lor zezaten eta bide batez gera zitezkeen zalantzak argitu nahiaz. Zerrenda hauetan ez zegoenak ezingo zuten esentzioa eskuratu. Zerrenda hauetan

15. I.U.A. E Sek. 5. Neg. L-(1,6,13,16,17). O.U.A. E Sek. 5. Neg. L-(2,5,9,12).

16. H.U.A. A Sek. 1 Neg. Aktak, L-196.

erreparatzen bagara, argi ikus daiteke zergatik Pasaian eta Irunen esentzio mota hau gainontzekoen aurretik dagoen ¹⁷.

Esentzioen atalerekin amaitzeko, Oiartzungo udalerrian gaixotasunak zirela eta gertatutakoaren berri azalduko dugu: Oiartzunen gaixotasunengandik esentzioen %30a lortu zen. Hau zela eta agian 1885-1899 errenplazu bitartetan hogeitaz gazteek baino gehiagok gaitz ezberdinak alegatu zituzten; hezurretako gaitzak, begietako gaitzak, gutxituak, erniak, dardarak besteak beste. Dena den, gazte hauek guztiak soldaduska egin behar izan zuten.

2.2.3. IHESALRI ETA IHESKARIAK

Ezizen horrekin, soldaduska ez egiteagatik ihesaren bidea aukeratzen zuten gazteak ezagutzen dira. Gazte hauek legez kanpo jokatu zuten beraien ekintzekin eta soldaduskari aurkakotasun handien egin zieten gazteak izan ziren. Izan ere, ihes egindako gazte hauek harrapatuz gero, gartzelako zigorra zain zuten edo urte batzuetako serbitzua itsasosteko baseetan. Gainera soldadugai askorentzat ihesaren bidea ejerzitorea ez joateko aukera bakarra zen.

Gipuzkoako probintziak, iheslarietat kokapen ezin hobea du, gertu baititu Frantziako muga eta Kantauri itsasoa. Batez ere bi bide hauetaz baliatu ziren Oarso-Bidasoako gazteak.

Adibidez, zerbitzari zen Irungo gazte batek, 1881.eko errenplazua osatu aurretik ihes egiten zuen Iparraldera, *“inducido por alguien seguro”* ¹⁸.

XIX.mende bukarean Ameriketara joan ziren gazte guztiak ez zuten soldaduska egin nahi ez izateagatik aldegin, askok haien egoera ekonomikoa hobetu nahiez ihes egin zuten.

“se marchó hace tres años no para ausentarse de/ servicio militar sino para mejorar su situación”

Dena den, legeen arabera, guztiak iheslarien atalean sartu behar ziren.

Aztertu ditugun udalerrietan ia urtero iheslarien bat topatu dugu. Ondoren datorren taula, Oarso-Bidasoako eskualdean XIX. azken laurdeneko soldaduskari dagokion iheslarien taula da.

6. Taula ; IHESLARIHESKARIAK OROHAR

	Hondarribia	Irún	Oiartzun	Pasaia	Denera
Iheslariak	4 4	7 6	123	29	272
Zerreda. %	%5'2	%4'3	%11'7	%9'6	% 7

17. Madnleko Gazeta 1896eko Martxoan Zenb. (79-83).

“Lista de los voluntarios guipuzcoanos que durante la última guerra civil defendieron con las armas en la mano los derechos del rey legítimo y de la Nación : Fuenterrabia 122, Irún 568, Oyarzun 51 y Pasajes 99”.

18. I.U.A. E Sek. 5. Neg. I Atala L-4.

Ezberdintasunak begi bistan daude: Irungo gazteek ia hiru aldiz gutxiago ihes egin zuten Oiartzuarrekin konparatuz. Pasaian ia % 10-ra iristen dira. Hala ere, esentzioen datuekin konparatuz, denerara %7ko portzentaia izatea, ez dirudi oso kopuru garrantzitsua denik.

2.2.4 BERREROSPENAK ETA ORDEZKAPENAK

Edozein gazteek sodaduska ez egitetik aske gera zedin, ezin zituen 2000 pta ordaindu. 1977.ko lehen errenplazuan Gipuzkoar gazte guztiak aske geratu baziren ere (udalek eta diputazioak hartuako erabakiaren ondorioz), gainontzeko errenplazuetan ez zen horrelakorik gertatu. Hortaz, diruaren truke soldaduskara joan ez zen gazteak, bere poltsikotik jarri behar izan zuen dirua.

Legeak mota honetako "esentzioa" onartzen zuen baina moralaren ikuspegitik, argi ikusten zen gazte batzuren portaera. Izan ere, berrerospen hauek normalean azken momentuan egiten ziren, soldadugai gazteek zein norantza edo norabide zuten jakin ondoren.

Hondarribian eta Oiartzunen gazte hauen portzentaia %3-a izan zen, Irunen berriz % 6'4-a eta Pasaian %5-a.

Diru kopuru hori ez zuten gazteek edo hauen gurasoek eskatzen zieten askotan. Laguntza herritarrei, elkarte batzuei, partikularrei e.a.¹⁹.

Irunen adibidez berrerospenak zuzenean egiten zituen elkarte bat sortu zen 1882. urtean, "*La buena fe vascongada*" zeritzona.

3. KUBA ETA FILIPINETAKO GUDAREN INGURUAN

3.1. Azken kolonien galera

XIX. mendean zehar Espainiako metropoliarekiko Amerika osoak independentzia lortu zuen. Ondorioz, espainiarrak hiru mende luzeetan zehar eraikitako inperio koloniala bertan behera erori zen. 1898ko gerrate gogorraren ondoren, itsasosteko azken koloniek Kubak eta Filipinek hain zuzen ere, penintsularekin zituzten harreman politikoak hautsi zituzten.

Galera honek oiartzun handia izan zuen metropolian, garai hartako boteretsuengan ezetik (Politikariak eta Militarrak), espainiar gizartea osatzen zuten pertsonengan eta bereziki gatazka hori zuzenean jasan behar izan zuten errenplazuetako gazteengan ere.

Gerrate hau ohituraz Kubako guda bezala ezagutu bada ere, Filipinetan borrokatu zela ezin daitezke ahaz. Guda koloniala 1895ean hasi zen, hala ere, gertaerarik famatuena 1898ko udan eman ziren, horregatik jarri zitzaion "98ko guda"-ren ezizena.

Itsasosteko gerrate honetan gertatutakoak eragin zuzena izan zuen urte horietan soldaduska egitera abiatu ziren gazteengan. Irla hauekara joan behar ziren gazteen kopuruak 90.eko hamarkadan izugarri handitzen baitira. Dena den 1878ko legeak dagoeneko serbitzu hori zegoela adierazten zuen. Hortaz, Oarso-Bidasoako udalerrietako gazteentzat uhartetara joateko aukera ez zen berria.

19. O.U.A. E Sek. 5. Neg. I Atala L-(1,9,10,11).

7. Taula ; ITSASOSTEKO SERBITZUA GIPUZKOAN

URTEAK	SERBITZURA	ITSASOSTERA	
1890	761	46	% 6
1891	757	120	% 16
1892	757	120	% 16
1893	583	93	% 16
1894	721	108	% 15
1895	1348	404	% 30
1896	2008	1001	% 50
1897	870	435	% 50
1898	1403	424	% 30

* Iturria ; Gipuzkoako Agiritegi Nagusia (B.O.P.)

Argi ikusten da taula honen bitartez 90ko hamarkadako igoera, batik bat bigarren zatian, 1895tik aurrera alegia. 80ko hamarkadan erreparatuz, itsasosteko serbitzua soilik %5-ra heltzen dala ohar gaitzke.

3.2. Gatazka harekiko jarrera ezberdinak

Guda kolonialak, piztu zen une beretik, aldeko eta kontrako iritziak sortarazi zituen. Uharte horiek urruti egon arren, gatazkaren berria penintsulako bazter guztietara heldu zen, baita Oarso-Bidasoako eskualdera ere. Honenbestez, gizartearen maila gehienetara eztabaida sutuak heldu ziren.

Urte horietan itsasostera abiatutako soldadu gazteek, bai eta haien senitartekoen ere, gerrate horren ondorioak jasan behar izan zituzten. Gazte ugari bizia utzi zuen irletan, beste asko zauriturik edo gaixorik bueltatu zen etxera.

Horrela, hasiera batean gatazka horrek XIX. mendeko prentsan sortu zituen eztabaidak eta iritzi kontrajarriak aztertuko ditugu. Jarraian, Oarso-Bidasoako eskualdeko udalerritan gertatutakoa plazaratuko dugu, horretarako, agintarien, eliz-gizonen, gainontzeko herritarren eta baita guda horretan protagonista nagusi izan ziren gazteen ikuspegiak eta jokabideak azalduko ditugu.

3.2.1. EGUNKARIETAKO BERRIAK, PRENTSAREN IKUSPEGIA

Gipuzkoar aldizkariak kolonietan gertatzen ziren pausoak egunero jarraitu zituzten 1895tik 1898-ra. Hasierako berriak egunkarietako azken orrialdetan zetozen eta soldaduekin zerikusi zuzena zuten. Bertan, espainiar ejerzitoaren garaipenak izugarri gorai patzen ziren eta porrotak berriz gutxitu. Hilda horretatik ziohazen espainiar generalek edo espainiar soldaduek burutzen zituzten ekintza heroikoen aipamena.

Berriak interes nagusi baten menpe zeuden, gatazka gizartearen aurrean gertakizun beharrezkotzat azaldu beharra alegia. Dena den, egunkari hauetan jende ezberdin ugari

idazten zuen, horregatik ez da batere harrizkoa gudaren aldeko eta kontrako iritziak nonahi zabaltzea.²⁰

Gudak intentsitatea irabazten zuen heinean, egunkarietako erreferentziak handitzen eta ugaritzen ziren. Gudaren gaiak 1898. urtetik aurrera, egunkarietan orri oso bat betetzen zuen. Haren garrantzia beraz bistan da.

Epealdi horretan ere, kolonietatik bueltatzen ziren gazte zauritu eta gaixotuen berri zehatza ematen zen hainbat egunkaritan. Gazte hauen nortasunarekin batera, soldaduak zein itsasontzitan zetozen eta zein portutatik pasako ziren zehazten zen ere.

3.2.2. AGINTARIEN JOKAERAK OROHAR

Gatazka horren lehen urratsak 1895. urtean gertatu ziren arren, 96tik aurrera udalerrri ezberdinetan gudarekiko erreferentzi gehienak azaltzen dira argi eta garbi.

Hasiera batean Gobernu Militarretik eta Zibiletik zetozen 1893. eta 1894. urtetan erreserban zeuden, (gehiegizko kupoaz zuten soldaduak), gazteak serbitzura joan behar zutelazioten zirkular bereziak²¹. Ondoren, errenplazuetako dokumentoen artean eta udalerrietako aktetan azaltzen ziren akordioen artean, Kuba eta Filipinetako guda kolonialari buruzko idatziak ugarituz zihoazen.

1896ko martxoaren erdialdera, gipuzkoar agintariak zirkular berezi bat bidali zuten Oarso-Bidasoako udalerriri guztietara. Bertan, gerratean zeuden edo egongo ziren soldaduen eta haien senitartekoen aldeko diru laguntza eskatzen zen. Diru hau Foru Aldundiak, Udalek eta herriarrek batu beharko zuten²².

Hurrengo urtean, Oarso-Bidasoako eskualdean behintzat ez zen diru laguntza berririk jaso. Dena den, "kolonietako askatasunean" hilabetero gertatzen ziren hildakoak. Eta gauza bera esan daiteke gerratek zauriturik edo gaixorik bueltatzen zirenen egoeraz.

Urte honetan aztertu ditugun lau udalerrietako aktatan soldaduskari buruz eta bidebatez Kuba eta Filipinetako gertaerei buruz aipamen ugari dago.

Udal agintariak, 1896ko legediak agindurik, urte hauetako errenplazuetako eginkizunak zorrotzasun gehiagorekin bete zituzten. Zerrendaketatik kaxako sarreraraino soldadugai bakoitzari jarraipen berezia egin zitzaion, ia haien mugimendu guztiak kontrolatzen ziren. Horretarako, gazte bakoitzaren txosten berezia eraikitzen zen eta bertan haren egoerari buruzko xehetasunak azpimarratzen ziren. Horrela, badirudi "kontrol" handiagoa imosatu zela. Aldizkari ofizialetan argitaratu ziren zirkularren mezuak ere hildo beretik zihoazen: zorrotzasuna, jarraipen osoa, zihurtagiri baliogarriak e.a.

Gudaren azken urtean, 1898koa alegia, beste diru laguntza eskaria zabaldu zen penintsulako udalerriri guztietara. Oarso-Bidasoako eskualdeko udalerriek urte horren apirilean jaso zuten "*Suscripción Nacional para ayudar a la Guerra de Cuba*" delakoa. Diru laguntza horrekin armada indartu nahi zen hastear zegoen gudarako "*Todo por un generoso*

20. " Diario de San Sebastian (1896-98), izenburu eta artikuluko ezberdinak: Animo españoles, Dios la Patria y el Ejército, Los culpables son los liberales, El interés económico de la guerra, besteak beste".

21. Gipuzkoako Agiritegi Nagusia. 1895-1896 urteak

22. H.U.A. A Sek. 1 Neg. Akatak L-203. " Se abre una suscripción nacional para auxiliar a viudas, huérfanos y enfermos de la guerra colonial, así como para la adquisición de buques de guerra para la Armada Española".

movimiento de patriotismo, cuando es la Nación la que se lanza a la guerra". Hondarribiako udaleko agintariak adibidez diru laguntza horren garrantzia goraiatzeko, 1638an jasandako frantsez erasoaren aurrean aberriak eskeini zien laguntza gogorarazi zien herritarrei ²³.

Hondarribian bertan adierazgarri ziren beste bi erabaki hartu ziren: batetik, zerga berri bat inposatu zen; diru laguntzak aurrera egin zedin seiloetan 0'25 pta gehiago ordaindu behar ziren. Bestetik, herriko festak ospatu beharrean, gudaren egoera tamalgarria zela eta, meza nagusi bat ospatu zen festen ordean eta haren dirua suskripzio orokorrera heldu zen.

Udalerrietako agintarien iritzia azaltzeko asmoz, hona hemen gatazka koloniala hasi bezain laister Irungo alkate ordeak plazaratu zituen hitzak:

"Los Estados Unidos de Norteamérica toman partido por los insurrectos de Cuba (...) 1º Energica protesta del ayuntamiento y sus habitantes por las ofensa de los americanos a la nación española, al valiente y sufrido ejército que defiende en Cuba la Integridad de la Patria (...) 2º Ofrecemos al Gobierno nuestro apoyo en el actual estado de cosas" ²⁴

Agintarien iritzia aztertzerakoan Oarso-Bidasoa eskualdean behintzat, gerrate kolonialarekiko aurkakotasunik ez zela azaltzen ohar gaitezke. Erakundeetan aldeko jarrera izan zen nagusi. Kontrako jarrera bakarra Oiartzungo alkatean aurki dezakegu, zeinak 1896ko errenplazuan 6 gaztetatik 2 soilik ekarri zituen: *"por no cumplir con las ordenes de las autoridades militares, redundando en el peor servicio y en contra de los intereses de los reclutas"* ²⁵.

3.2.3. ELIZAREN IRITZIAK

Agintarien antzera, elizaren iritziei dagokionez, ez zen aurkakotasun nabarmenik somatu. Hortaz elizak ere, gatazkaren aldeko apustua egin zuen, moralaren ikuspegitik behintzat.

Gatazka armatua zela eta, Oarso-Bidasoako eliza buruek espainiar soldaduen aldeko meza eta otoi-tza bereziak eskatzen zituzten. Horretaz gain, diru laguntza ("Suscripción Nacionales" delakoak) lortzeko elizaren garrantzia probetxatzen zen ere. Hona hemen adibide batzu; Pasaiaiko udalerrian elizbarrutiko gotzaiak 1896ko "Apoyo moral y particular que se debe prestar a la Suscripción nacional" eskatu zuen. Irunen meza nagusi bat ospatu zen, zeinatan "Te Deum"-a kantatu zen "Por el facto y deseado termino de la rebelión en las Islas" 1898ko apirilean. Baina zalantzarik gabe Hondarribiako eliz-gizonak ziren iritzi gogorrenak zituztenak. Izan ere, gudaren azken ekintzak hasi baino egun batzu lehenago, Jangoikoaren laguntza eskatu zuten ondoko hau esanez: *"Impetrar del Señor altísimo la gracia celestial del triunfo de nuestras armas en la presente guerra contra los Estados Unidos de Norteamérica"* ²⁶.

23. H.U.A. A Sek. I Neg. Aktak L-204.

24. I.U.A. A Sek. I Neg. Aktak L-119.

25. O.U.A. E Sek. 5. Neg. I Atala L-11.

26. P.U.A. A Sek. 1 Neg. Aktak L-14. I.U.A. A Sek. 1 Neg. Aktak L-124. H.U.A. A Sek. 1 Neg. Aktak L-204.

3.2.4. HERRITARREN JARRERAK

Herritarren ikuspegia gudaren aldekoa edo kontrakoa zen esaten duen dokumentu zehatzik ez dugu topatu. Dena den, badakigu gatazka horrek iraun zuen bitartean ikertutako udalerrri guztietan jarrera eta egoera ezberdinak aurki zitezkeela.

Ez dugu uste suskripzioan parte hartzen zuen jendea (200 eta 500 Pzta emanen) gudarekiko aurkako iritzia izango zuenik. Hala ta guztiz ere, batzuk diru hori "sinbolikoki" beste batzuk itxura eman nahiez eta azken batzuk behartuak ematen zuten. Baina ezin daitekeena ukatu zera da; udalerrietako aberats gehienek diru laguntza eskeintzen zioten guda kolonialari.

Irungo udalerrian 1898an jasotako diru laguntza 14000 pzta izan zen. Kopuru honi udalak 6000 pzta gehitu zizkion. Suskripzio honetan berrehun irundarrek parte hartu zuten, biztanlegoaren %2-a gutxi gora behera²⁷. Hondarriak, Oiartzunek eta Pasaiaiko udalerriek antzeko egoera bizi izan zuten.

Suskripzioan parte hartzen zuten pertsonen emandako diru kopuruari zegokionez ezberdintasunak baziren.

8. Taula ; DIRU LAGUNTZAREN BANAKETA

	Hondarribia	Irun
400 pzta baino gehiago	0	5
100-400 pzta tartean	10	14
25-75 pzta tartean	27	23
5-10 pzta tartean	44	39
0'25-3 pzta tartean	24	118

Bai Oiartzungo udalerrian, bai eta Pasaian ere, diru laguntzari buruzko dokumentuak urriak dira. Badakigu jakin Diputazioak bidalitako gutunak, 1896koa eta 1898koa, jaso zituztela. Oiartzunen diru laguntza horren gainean geratzen den datu bakarra kopurua da: batean 1000 pzta eta bestean 1500²⁸.

Partikular ugari guda kolonialaren aurrean bere "abertzaletasuna" adierazi zuen. Hauen artean Irungo Karlisten taldea gogoratu behar da, hauek nahiz eta dirua ez eman "*por haber tenido gastos extraordinarios y hallarse en estos momentos las arcas vacias*" gudaren alde baitzeuden. Irungo ikasle taldeak 900 pta bildu zituen gudan laguntzeko. Hondarribiko portuko Mac-Mahon itsasontziko kapitainak eta haren marinelek 300 pzta baino gehiago eman zituzten. Irungo eskoletako irakasleak, datozen urteetan eskolako berrikuntzetan ordaindu beharreko pztak gatazka horretara bideratzeko prest azaltzen dira²⁹.

Baina gudaren aldeko erakustaldi guztietatik adierazgarriena gure ustez, Frantziako kontsulafuak 1898ko uztailaren 13an Irunen zuen bulegoan egin zuen idatzia zen:

27. I.U.A. A Sek. I Neg. Aktak L-20. I.U.A. E Sek. 5. Neg. L-124

28. O.U.A. E Sek. 5. Neg. II Atala L-7, exp. 1.

29. I.U.A. A Sek. 1 Neg. Aktak L-124.

*“Vistas las circunstancias sensibles y desgarradoras que atraviesa la heroica y noble nación española, no celebraremos este año la Fiesta Nacional francesa del 14-JUL, suspendiendo esta vez el banquete tradicional (...) un saludo y nuestra simpatía para la nación hermana de parte de la colonia francesa en Irún”*³⁰.

Honenbestez, argi dago Kuba eta Filipinetako gerrateari dagokionez hiritarren zati baten jarrera. Honetan ez da inolaz ere aurkako iritzirik somatzen.

Oiartzungo udalerrian 1896ko azaroan, karabineroen buruak luzatzen dio Alkateari *Karabinero eta herritarren artean izandako eztabaida baten ondorioz ikerketa bat egiteko gomendioa*. Hurrengo egunean udalak eztabaida horren berri ez zuela adierazten zuen idatzi bat argitaratu zuen. Gertakari honi buruz dokumentu gehiagorik topatu ez den arren, galdera darrai: zer gertatu zen benetan?³¹

Azken hau, aipamen bat besterik ez bada ere eta soldaduskaren aurkako adierazpen bat izan zitekeen arren, herritarren artean gudaren aldeko jarrerak nagusiak ziren Oarso-Bidasoako eskualde, lortutako dokumentuetan oinarrituz noski.

3.2.5. SOLDADUGAIEN JOKABIDEAK

Zalantzarik gabe errenplazuetako gazteak izan ziren guda kolonialaren protagonista nagusiak. Badakigu zaila dela gazteek guda harekiko izan zezaketen iritzia zehatz mehatz jakitea, baina gure lanaren helburuetariko bat hau denez, erantzun eta jarrera batzuk aztertuko ditugu. Hau guztia posible izan dadin gatazka horren aurrean gazte askoren jokabidea zeharkako bideetatik ikusiko dugu.

Legearen atalean adierazi dugun eran, edozein gazte soldaduskara ez joateko irtenbide ezberdinak zituen: batetik, esentzio legala lor zezakeen, bestetik lheslaril iheskaria izan zitekeen. Hirugarrenik berrerospenaren bidea izan zezakeen. Azkenik gehiegizko kupoaren aukera zuen gazteak, urtero zerrendatutako gazte guztiak ez baitziren soldaduskara joaten.

Esentzioak lortzen zituzten gazteen kasuen kopurua, Kuba eta Filipinetako gerratearen garaian berdin mantendu zen. Hortaz, gazteek ez zuten esentzioetan topatu guda koloniala egitetik aske geratzeko bidea.

Berrerospenei dagokionean gauza bera esan daiteke. Udallerri batzuetan kopuruak nabarmenki jeitsi ziren: Irunen 1877-1899.epealdian 113 berrospenen egotetik, guda garaian bi berrerospen izatera igaro zen³².

Datu hauek zerrendatutakoen gazteak kontutan hartuz egindakoak dira. Beraz, portzentai hauek altuagoak dira zozketatutako gazteek bakarrik kontutan hartuz gero.

lheslarien kasuak aztertzen baditugu, hauen portzentaia 90eko hamarkadan igoera nabarmena jasan zutela ikusiko dugu. Hemen dago taula adierazgarria;

30. I.U.A. E Sek. 5. Neg. III Atala L-5.

31. O.U.A. A Sek. I Neg. Aktak L-96." E Sek. 5. Neg. I Atala L-II.

32. I.U.A. E Sek. 5. Neg. I Atala L-(17,18,19,20eta21).

9. Taula ; IHESLARIAK 90. HAMARKADAN

URTEAK	HONDARR.	IRUN	OIARTZUN	PASAIA	DENERA
1890-91	1	9	5	2	17
1892-93	4	4	4	1	13
1894-95	3	5	21	3	32
1896-97	9	17	36	7	69
1898-99	6	14	16	3	39
1890-99	23	49	82	16	170

Datu hauek erraz isladatzen dute gazteek gudari buruz zuten aurkako iritzi eta jarrerak. Gazte askok ihesari ekin zion, soldaduskatik aske geratzeko modu bakarra bait zen.

4. OARSO-BIDASOAKO ESKUALDEKO SOLDADUGAIEN EGOERA EKONOMIKO SOZIALARI HURBILPENEA

Sailkapeneko ekitaldira aurkezten ziren gazte guztiek, agintari militarrek prestatutako galde-sorta bat bete behar zuten. Honetan gaztearen izenarekin eta abizenarekin batera, gurasoen izen-deiturak, bizilekua, jaiotze data eta lanbidea besteak beste zihurtatzen ziren³³.

Galde-sortan soldadugaiek emandako erantzunak probetxatuz, Oarso-Bidasoako eskualdeko egoera ekonomikoaren eta sozialaren azterketa egin daiteke. Hurbilpen bat besterik izango ez den ondoko azterketa hau nahikoa adierazgarria da udalerrien arteko ezberdintasunak oso nabariak direlako.

Lortu ditugun datuak Irun, Oiartzun eta Pasaiako gazteenak izan dira soilik. Hiruek zerrendadutakoan %65a baino gehiago osatzen dute, nahiz eta udalerrien artean portzentaia berak ez izan; Irunen %80, Oiartzunen %70 eta Pasaietan %55.

4.1. Soldadugaien Lanbideak

XIX. mendeko azken laurdenean lanbide ezberdin ugari zuten Oarso-Bidasoako gazteek. Lanbideak talde edo multzo ezberdinetan elkartu ditugu.

33. I.U.A. E Sek. 5. Neg. I Atala

"Filialción de : José M^o Inocencio Iguíñez y Ostiz. Hijo de José Gabriel y de Juana Josefa Natural de Irun (...) Nació el 28-Oct-1858, su Religión C.A.R. Oficio alpargatero Edad 19 años 2 meses y 24 días: su Estado soltero, su Estatura(...) acredito saber leer y escribir. Fué alistado, sorteado y declarado soldado por el ayuntamiento de Irun en el que obtuvo el número 12. En Irún a 13-May-1878.

10. Taula : GAZTEDIAREN IANBIDEAK

LANBIDEAK	IRUN(1451)	OIARTZUN(703)	PASAIA(160)
Nekazariak	550 %38	577 %82	22 %14
Jornalariak	190 %13	7 %1	30 %18'5
Arrantzaleak	5 %0'3	1 %0'15	26 %16
Dendari/komertzi.	141 %9'8	2 %0'3	8 %5
Ikasleak	80 %5'5	12 %1'7	10 %6'25
Zurginak	60 %4	21 %3	12 %7'5
Mehatzariak*	62 %4	42 %5'8	2 %1'25
Zapatariak**	56 %3'8	17 %2'4	3 %1'8
Harotzak	54 %3'7	5 %0'7	4 %2'5
Pelotariak	6 %0'4	— —	4 %2'5
Eskribauak	37 %2'5	— —	4 %2'5
Garraioak***	35 40'25	9 %1'3	1 %0'6
Enpleatuak	24 %1'5	— —	2 %1'25
Okinak****	22 %1'5	7 %1	2 %1'25
Trenbideko langileak	20 %1'5	— —	— —

* Ezizen honen barruan, Ikazkinak eta Harrobietako langileak sartu ditugu

** Zapatariekin batera Alpagatariak ere daude.

*** Obidide honetan, Kotxeroak, Karretariak eta Barkeroak daude.

**** Okinekin batera konfitariak eta gozogileak sartu dira.

4.2. Udalerrien arteko ezberdintasunak

Bildutako datuek eta aurreko taulan laburbildutako lanbideak Oarso-Bidasoako hiru udalerriei erreferentzia egiten diete. Gure ustez, datu horiek Gipuzkoako probintziak XIX.mendeko azken laurdeanean bizi duen industrializazio prozesuaren islada dira. Hortaz, gazteek zituzten ogibideak, errealtate ekonomikoaren eta sozialaren erudia besterik ez dira.

Ikus eta azter dezagun lehenik Oiartzungo kasua. Gure datuek soldadugaien %80a baino gehiago nekazaria zela azaltzen dute; XIX. mendeko azken laurdeneko oiartzuar gizartean nekazal bizimodua zen nagusi, gainontzeko lanbide gutxi zegoen. Irun eta Pasaiaiko udalerrietako datuetan erreparatuz gauzak zeharo aldatzen dira. Bi hauetan nekazaritzak zuen gehiengoa eta lanbide ugari topatu ditugu.

Irunen nekazarien portzentaila ez zen %40-ra iristen (Oiartzungo erdia). Jornalarien taldearen portzentaila %13-koa zen. Gure ustez jornalari taldeen barruan lanbide ezberdinak egongo ziren, hauek guztiak ez ziren nekazariak izango. Horrenbestez, gutxi gora behera erdiak nekazal munduan egiten zuen lan eta beste erdia, fabriketako jornalariak, komertzialariak eta bestelako lanbideak egingo zituzten.

Ondoren datozen taldeak aztertuz argi ikus daiteke Irungo soldadugai gehienak nekazaritza ez ziren beste arloetan hasi zirela lanean: komertzialariak ia %10 osatzen zuten, ikasleek %55-a eta zurginek, mehatzariak eta harotzek %4-a osatzen zuten.

Antzeko zerbait ikus daiteke Pasaiaiko udalerrietako soldadugaien lanbideak aztertzerakoan. Pasaian, jornalariak gehien izanik, %18,5-a suposatzen zuten. Itsas-gizon edo arrantzaleen taldeak %16-ra eta nekazariena %14ra iristen ziren. Ondoren zurginak %7'5-a, Ikasleak %6,25-a eta Komertzialariak %5 osatzen zutelarik.

Pasaiaiko udalerriko gazteen artean lanbide ugari eta aldi berean ezberdin horiek egotearen arrazoirik nagusia, Gipuzkoako porturik nagusia zela zen. Itsasgizonekin batera, sareak egiten soldadugai ugari zegoen margolariak zirenak edo txapak margotzen zituztenak, baita igeltseroak ere. Hortaz, portuaren ingurunean bizitzeak, pasaitar gizartearengan eta beraz soldadugaiengan, izan zuen bai inungo zalantzarik gabe eragin zuzena.

Pasaia bezala, Irungo kasua guztiz adierazgarria da. Izan ere XIX. mende bukaeran, Irun Gipuzkoako merkatal gune garrantzitsuenatariko bat zen, batik bat Frantziarekin muga egiten duelako. Gune horren adibide argienetako bat, lehen aipatutako guztiarekin batera, trenbideko langileek soldadugaien artean %1,5-eko portzentaila zen.

Pasaiaiko eta Irungo egoera baieztatzen zuen ezaugarria zerrendatzen ziren etorkinen kopurua zen. Bai Oiarztungo udalerrian bai eta Hondarribikoan ere, han inguruko udalerrietako gazteak zerrendatzen ziren (Nafarroako mugakoak eta Oarso-Bidasoako eskualdekoak batik bat). Pasaian eta Irunen Euskalerriko edozein udalerrietako gazteak azal zitezkeen bai eta Penintsulako beste probintzietakoak ere³⁴. Kanpotar etorkinen nabarmenitze honek udalerrri bi hauek bizi zuten industrial eta merkatal garapenekin zerikusi zuzena zuen.

5. ONDORIO OROKORRAK

Burututako ikerketa honen asmorik nagusia, izenburuak ongi laburbiltzen duen moduan XIX.mendeko soldaduskari buruzko jarrerak eta jokabideak aztertzea izan da, Oarso-Bidasoako udalerrri gehienak adibidetzat harturik; Hondarribia, Irun, Oiarztun eta Pasaia.

Dena den, helburu nagusi hori lortzeko asmoz, abiapuntutzat derrigorrezko soldaduskarekin zerikusi zuzena izan zuen gaia jorratu dugu, legeen atala hain zuzen ere.

Gure azterketa, hortik hasi da 1876ko-Uztaila-21ko foru sistemaren deuseztapen legea ezarritakoa gogoratu nahiez. Gertaera horren ondorioz derrigorrezko soldaduska inposatu baitzitzaizen euskal hiru probintzietan.

Gure datuen arabera egoera berriaren aurrean Oarso Bidasoako udalek dimisioa aurkeztu zuten, eta dirudienaz erantzun bera eman zen Gipuzkoako gainontzeko udalerritan, (dena den, egoera honek azterketa sakonagoak eskatzen ditu). Lehen errenplazua gainera, modu ikusgarrian amaitzen da, probintziako soldadugai guzietan berrerospenaren ondorioz ez baitute soldaduskara joan behar.

1877ko egoera "xelebrea" ez zen XIX. mendeko azken laurdenetik berriro ere gertatu. Gure ustez, jokaera horren gako errenplazuak Diputazioak egin beharrean udalek egingo zituztela da. Hortaz, arazoa edo aurkakotasuna foru sistemen deuseztapen legeak ezarritako funtzio aldatetan egon zen eta ez soldaduskari buruzko kontrako irizietan.

34. O.UA. E Sek. 5. Neg. I Atala L-(8,9,10,11,12,13 eta 14) P.U.A. E Sek. 5. Neg. Igo Atala L-(3,4, eta 5)

Legeen atala, soldaduskarako legediekin osatu dugu. Bertan, udal ezberdinetako gazteak zerrendaketaren lehen pausotik kaxako sarrera bitartean gertatutakoak aztertu dira. Honela, gazteek jarraitzen zituzten pausoak ikusi ditugu; zerrendaketak, esentzioak, sailkapena, zozketa, iheslariak, berrerospenak, besteak beste.

Ikerketa hau Oarso-Bidasoako eskualdeko hainbat udalerritan egin dugu; Hondarribian, Irunen, Oiartzunen eta Pasaian. Behaketa honen bidez, udalerrri hauen arteko ezberdintasunak antzeman ditugu; esentzioen portzentailetan, iheslarien kasuetan, berrerospenen adibideetan, soldadugaien lanbideetan e.a. Hau guztia ulergarriagoa gerta zedin, datuak taula adierazgarrietan laburbildu ditugu.

Errenplazuak osatzen ziren bitartean, soldaduska bete behar zuten gazteen jokabideak aztertzeko aukera izan dugu. Horregatik, pauso ezberdinetan gertatzen ziren gorabeherak ikertu eta horien berri eman dugu, bereziki, gazte jende honek iheslari eta berrerospen atalean erakutsitako jokabideak. Bi hauetan ikusi baitaitezke argi eta garbi soldadugaiak derrigorrezko soldaduskarekiko zituzten iritziak, batzuk ihesaren bideari ekiten zioten bitartean besteak diruaren truke lortzen zuten "askatasuna".

Gure datuen arabera derrigorrezko soldaduskaren ezarpena, "trauma" handirik gabe gauzatzen da 1877tik aurrera. Egoera hau zeharo aldatzen da 90eko hamarkadaren erdialdera. 1898ko guda kolonialak eragin zuzena izan baitzuen urte horietan soldaduska egitera abiatu behar ziren gazteengan. Urte horietan egondako iheslari kopuruak izugarri handitzen dira udalerrri guztietan.

Kuba eta Filipinetako gudak aukera eman digu XIX. mendeko gizarteak zerlitolako iritziak eta jarrerak izan zituzten ikertzeko. Nahiz eta gizartearen zati bakar baten datuak izan, haien jokabidea guztiz adierazgarria izan da.

Komenigarria litzateke gure ustez eraikitako bideari eustea, gai honek ikerketa sakonagoak eskatzen ditu eta. Oraindik ikertzeko daude garai horietan Gobernu Zibilak, Gobernu Militarrak eta soldaduskarekin zerikusi zuzena izan zuten beste erakundeetako artxiboak eta dokumentuak. Hemen topatu daitezkeen dokumentuak oso interesgarriak eta baliogarriak izango ziren gaiaren ikuspegi osoa izateko garaian.

Gure azterketak atal batzu argitzen baditu ere, beste askok ilunpetan darraite; gatazka horretan izandako hildakoak, irletan gaixotuakoak edo zauritutakoak, eskeinutako diru laguntzak e.a.

Beraz, aukera asko dago ikerketekin jarraitu nahiez gero. Hau egitekotan euskal historiografian ezezaguna den gaiari atea irekiko genioke gainera.

6. KONTSULTATUTAKO ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

6.1. Iturriak

- Hondarribiako Udalerriko artxiboa (H.U.A.)
- Irungo Udal Artxiboa (I.U.A.)
- Oiartzungo Udal Artxibategia (O.U.A.)
- Pasaiko Udalerriko artxibategia (P.U.A.)

Hiru kasuetan 1876-1900 epealdia :

A sekzioa I Neg. "Actas".

E Sekzioa 5. Neg. I, II eta III atalak ; "Reemplazos" "Correspondencia" eta "Guerras"

- Donostiako Udal Liburutegia
Gipuzkoako Aldizkari Orokorra (B.O.P.)
XIX. mendeko egunkariak "Diario de San Sebastian",
"El fuerista", "El Urumea" e.a.

6.2. Bibliografia

- ABELLA, F.; "Derecho *administrativo provincial y municipal*" Tomo VI. Madrid. 580 Pg. 1880.
- ANGULO, J.M.; "La abolición de los fueros e instituciones vascongadas" 2 tomo (2.en Edi.) Madrilen. 1976.
- ALIJUSTES, G.; "1876Ko uztailaren 27eko foru sistemaren deuseztapen legearen ondorioz, estatuko soldadutzarako lege orokorraren ezarpena Andoainen" LEIÇAUR 3. Pg 159-193. Andoain, 1994.
- CASTELLS, Luis.; "Modernización y dinámica política de la sociedad guipuzcoana de la Restauración" Madrid. 1987.
- DIAZ, C.; "Manual de reclutamiento y reemplazo del ejército" Pamplona. 1885.
- ESPARZA, J.M.; "Abajo las quintas" Txalaparta. Tafalla. 1994.
- FERNANDEZ SEBASTIAN, J.; "La génesis del fuerismo. Prensa e ideas políticas en la crisis del Antiguo Régimen (País vasco 1750-1840)" Edic. Siglo XXI. Madrilen. 1991.
- MONTERO, M.; "La constitución del País vasco contemporáneo". Donostian. Txertoa. 1993.
- SECO SERRANO, C.; "Militarismo y civilismo en la España contemporánea" Madrid. 1984.
- SERRANO PEREA, M.; "Manual de reclutamiento y reemplazo del ejército". Madrilen. 1896.